

JOAN DOA, ETORRI DATOR

Malen Zobaran
Busturia, 12 urte

Munduan beste askotan bezala, bazen herri txiki-txiki bat. Herria mendi puntan zegoen eta puntaren puntan baserri bat, baserri horretan familia txiro bat bizi zen.

Ama (etxeko andre) eta aita etxeko gizon. Ama, etxeko eta baserriko zereginenez arduratzen zen. Aitak, ordea, kanpoan egiten zuen lan. Inguruko teilatu konpontzailerik trebeena zen, eta langintza horretan bere semeak laguntzen zion. Lanez gainezka zebiltzan; diruz, beste alde, oso urri. Baserrietako hormak teilatuak eta enparauak konpontzen aritu arren, gure Jose beti barregarri.

Jose eta Josetxu hargin onak ziren, baina janak eta edanak galtzen zituen. Tabernan ordu gehiegi ematen zuten. Horregatik kantatzen zioten:

“Jose da, jan da gose, edan da egarri, jan da edan, da Joxe beti barregarri, ai, oi, ene! Jose barregarri ez eidazu botila hutsik ekarri”

Halako egun batean, gure aita-semeak auzoko teilatu bat konpontzen ari zirela haize boladak Joseri txapela kendu zion burutik. Han zihoan, airean izugarritzko andaran. Bazirudien ortzi-mugan galduko zela. Bai Josek, bai Josetxok harrituta begiratzen zioten. Halako batean, aitari barregarrikeria hau bururatu zitzaion eta pentsa barik bota zuen:

– Txapel hori oraintxe bertan lehen egondako lekura itzultzen bada, nik Gaztelugatxen gora dagoen mailadia oinez eta ortozik igoko dut neguko egunik hotzenean.

Berba hauek aidera jaurti eta batera, beste haize bolada batek jo zuen eta txapelaren norabidea aldatu. Han ikusi genuen txapela jira-biraka lehen egindako bidetik itzultzen. Bat-batean Joserren buru gainean gelditu eta, dast!

Buruan sartu zitzaion belarrietaraino txapela. Ezusteaz oreka galdu eta teilatutik jausteko zorian egon ziren gure aita- semeak. Hurrengo bost minutuak gertatutakoa sinestu ezinik eman zituzten. Txundituta geratu ziren, baina hori ez zen okerre-na, emandako hitza bete beharra baino.

Handik egun batzuetara zabaldu zen herri osoan gertakizun horren berri eta egindako promesarena. Laster hasi zitzaizkion lagunak kontuak hartzen, tabernan sartzen zen bakoitzean, edo kalean auzokide batekin topo egiten zuenean. Beti zegoen norbait adarra jotzeko prest eta hitza bete behar zuela gogoratzeko. Beste erremediorik gabe eguna eta ordua jarri zituen.

Petraren tabernan zeuden. Taberna bete-beterik eta Josek, erdi txolinduta, aulki gainera igo eta esan zuen:

– Datorren domekarako neguko egunik hotzena iragarri du Gorbeiaiko artzainak. Horixe izango da nire hitza beteko dudana eguna. Iluntzeko zazpitan errosario ostean igoko ditut Gaztelugatxeko mailak, oinez eta ortozik.

Heldu zen igandea. Goizean goizetik agertzen zen egunaren berezitasuna. Airean nabaritzen zen jendearen urduritasuna. Edonon ikusi eta entzun zitezkeen jendeak egiten zituen komentarioak. Horrela joan zen goiza. Heldu zen arratsaldea eta errosarioko ordua. Arratsalde horretan leporaino bete zen eliza. Herriko jairik nagusienean baino lagun gehiago zegoen igande hartako errosarioan.

Apaizak, unea aprobeztatuz, inoizko errosario-rik luzeena errezatu zuen. Baten batzuk, han elizaren puntan zeudenak, ia lo gelditu ziren, baina hasten den gutzia bukatu behar dela eta bukatu zen errosario santu hura.

Han joan ziren denak, Jose buru zutela, Gaztelugatxerantza. Handik ordu pare batera, Gaztelugatxe azpian zegoen herri osoa. Jose oinetakoak kendu, prakak tolestu eta mailetan gora abiatu zen. Hiru lau pauso eman zituenerako herritarrak txistuka eta oihuka hasi zitzaizkion.

– Gezurti hutsa zara! Hori ez da emandako hitza! –esaten zioten.

– Ibilbidea ortozik egin behar duzu! Bai, bai, hori, hori kendu galtzerdiak!!

Josek atzera egin, oinetakoak utzi zituen lekura itzuli, eta galtzerdiak kendu zituen. Une hartan ohartu zen igande iluntze hartan egiten zuen hotzaz. Oinak izoztuta sentitzen zituen. Zapaltzen zituen harri koskorrak ere ez zituen sentitzen. Hotz minbera batek hartu zizkion oinak, baina hasi beharra zegoen eta abiatu zen mailadian gora. Eskailerak banan-banan igotzen zituen eta oinak

Heldu zen igandea. Goizean goizetik agertzen zen egunaren berezitasuna. Airean nabaritzen zen jendearen urduritasuna. Edonon ikusi eta entzun zitezkeen jendeak egiten zituen komentarioak. Horrela joan zen goiza. Heldu zen arratsaldea eta errosarioko ordua. Arratsalde horretan leporaino bete zen eliza. Herriko jairik nagusienean baino lagun gehiago zegoen igande hartako errosarioan.

Apaizak, unea aprobetxatuz, inoizko errosario-rik luzeena errezatu zuen. Baten batzuk, han elizaren puntan zeudenak, ia lo gelditu ziren, baina hasten den guztia bukatu behar dela eta bukatu zen errosario santu hura.

Han joan ziren denak, Jose buru zutela, Gaztelugatxerantza. Handik ordu pare batera, Gaztelugatxe azpian zegoen herri osoa. Jose oinetakoak kendu, prakak tolestu eta mailetan gora abiatu zen. Hiru lau pauso eman zituenerako herritarrak txistuka eta oihuka hasi zitzaizkion.

– Gezurti hutsa zara! Hori ez da emandako hitza! –esaten zioten.

– Ibilbidea ortozik egin behar duzu! Bai, bai, hori, hori kendu galtzerdiak!!

Josek atzera egin, oinetakoak utzi zituen lekura itzuli, eta galtzerdiak kendu zituen. Une hartan ohartu zen igande iluntze hartan egiten zuen hotzaz. Oinak izoztuta sentitzen zituen. Zapaltzen zituen harri koskorrak ere ez zituen sentitzen. Hotz minbera batek hartu zizkion oinak, baina hasi beharra zegoen eta abiatu zen mailadian gora. Eskailerak banan-banan igotzen zituen eta oinak

harmaila bakoitzaren kontra astintzen zituen, hanketan hotza kendu nahiz edo...

Horrela egin zuen bide erdia. Bitartean, jendea han beheko maldari begira zegoen gertatuko zenaren zain. Iluntzean sartu ahala, gero eta gutxiago ikusten zen. Josek 150. maila zapaldu zuenerako eskuan zeraman argitzeko argiontzia baino ez zen ikusten. Bat-batean aipatutako 150. maila zapaltzarekin batera alarau bat entzun zen. Gaztelugatxe inguruak beldurtu eta izutu zituen garrasiak. Gaztelugatxek berak ere dardar egin zuen eta olatu txiki bat altxatu zen. Zer gertatu ote zen? Norena zen alarau hura? Joserena izan behar zuen derrigorrez! Beste inor ez baitzegoen Gaztelugatxeko mailadian gora. Bai, Joserena zen. Han zegoen argiontzia jaurti eta ezkerreko oinari helduta ai-eneka hasi zen. Bere alboan kirikolatz eder handi bat ari zitzaion berbetan.

- Sentitzen dut Jose, zu gelditzeko bide erdian jarri beharra, eta ni zapaltzean eman didazun mina, baina ez neukan beste modurik zu ohartarazteko.

- Eta zer da esan behar didazuna bada?

- Lehen ere jende asko etorri da hona bere promesak betetzera, baina inor ez da ausartu 300. maila zapaltzen, nik zeuri ere ez zapaltzea gomendatuko dizut.

- Baina ez badut zapaltzen 300. maila, hitza bete gabe geratuko da.

- Hobe duzu erdizka betetzea 300. mailak duen boterea frogatu baino. Sekretua da.

Hitz hauek esan eta batera desagertu zen kirikolatza. Jose bere harriduratik atera zenean, zutik jarri, eskuan argiontzia hartu, kandela piztu eta aurrera egin zuen gora eta gora. Behean zegoen jendeak puntu txiki bat besterik ez zuen ikusten tontorrera heltzeko zorian. Halako batean, argi urdin batek hartu zuen Gaztelugatxeko tontorra. Harekin batera haizeak astindu zituen inguruak. Herritarrek babesa aurkitu behar zuten. Ikuskizun hark 5 minutu iraun zuen. Ostean, isiltasuna jabetu zen, berriz, itsas bazterrean. Herritarrak beldurtuak zeuden, ez ziren zirkinik egiten ere ausartzen. Orduak joan, orduak etorri eta Jose ez zen agertzen. Joserren lagunak beldurtuta egon arren jakin nahi zuten non zegoen. Horregatik hurrengo goizean lau lagunek eguzkiaren lehen printzekin igotzea pentsatu zuten. Tontorrera igo zirenean ez zuten inondik ere ezer ikusten, ezta Jose ere. Aurkitu zuten gauza bakarra Joserren txapela izan zen. Hantxe 300. mailaren gainean eta handik gora zerua eta zeruan itsas txoriak eta itsas txorien artean bat nabarmentzen zena.